

## **MOBILIZAZIOAK IRAKASKUNTZAN MURRIZKETEN ETA LOMCE-REN AURKA, BENETAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ETA HEMEN ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE**

**STEE-EILAS, LAB eta ELA sindikatuek LOMCEren aurkako ikastetxeetako klaustroen atxikimendua eskatuko dugu, Hezkuntza sailari interpelazioak luzatuz.**

Gure hezkuntza sistemak jasaten ari den eten gabeko erasoak izaten ari diren ondorio nagusiak hezkuntzaren kalitatearen kaltetzea eta langileon lan baldintzen okertzea dira. Berdin Madrilgo gobernua, zein Nafarroakoa eta EAeko jaurlaritza, azken hauek eragile sozialen, sindikalen, politikoen eta oro har jendarte osoari muzin eginez, gutxiengoan inposatutako neurri zehatzen bitartez eta aurrekontuetan ezarritako murrizketen bitartez, hezkuntza mundura politika neoliberalak ekartzen ari dira. Era horretan, krisiaren ondorioak berau sortu ez dugun herritarroi ordainaraziz.

Era berean, Madrilgo gobernuak, estatuaren birzentralizazio eta uniformizazio planari jarraiki, LOMCE delako legea inposatzeko prozesuari jarraipena eman nahi dio, hurrengo urratsa aurreproiektua Espainiako parlamentura helaraztea izango delarik.

Ugariak izaten ari dira eskola komunitateak arlo batean zein bestean burutzen ari den ekimen sorta, neurri murriztaile eta inposatzaileak salatzeko, arbuiatzeko eta beste era bateko neurriak behar direla aldarrikatzeko. Argi eta garbi gelditzen ari da ez ditugula murrizketak onartzen, LOMCE-ren aurka gaudela eta gure hezkuntza sistema bertan erabaki nahi dugula.

Honekin batera, langileon lan baldintzei buruzko benetako negoziazioa, konpromisoak eta bermeak bidera ditzan exijitzen diegu administrazioari.

Horren harira indartu dugu mobilizazioetarako deialdia, delegatuen elkarretaratzeak eta ikastetxeetan "eskolak kalean" izeneko ekimena bultzatuz. Hauek guztiak ikastetxe bakoitzean eta eragile ezberdinek bultzatuta burutzen ari diren ekimenekin bat egiten dute.

Beste urrats bat eman nahian, proposamen berria luzatu nahi diegu ikastetxeetako klaustroei, LOMCE-ren aurreproiektuaren aurrean euren salaketa-adierazpena egin dezaten eta eusko Jaurlaritzari interpelazioa luzatu diezaioten, LOMCEri ez esateko eta halakorik gauzatuko balitz hemen ez aplikatzeko eskaera eginez.

Arestian aipatutako mobilizazioek maitzean eta ekainean zehar izango dute jarraipena. Dei berezia luzatzen diegu langile guztiei, eskola komunitateko kideei eta herritarrei, norabide berean planteatuko maitzaren 30eko greba orokorraren deialdiarekin bat egiteko.

**LOMCEri EZ!**

**MURRIZKETARIK EZ!**

**EUSKAL HERRIAN GURE HEZKUNTZA ERABAKI!**

Bilbon, 2013ko maiatzaren 15ean

**STEE-EILAS** 

  
Irakaskuntza LAB

  
Irakaskuntza  
ELA  
gizalan